



**Zergabilketa eta genero eragina,
Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren
gaineko Zergan, Balio Erantsiaren
gaineko Zergan, Zerga Bereziak eta
Jokoaren gaineko Zergaren araudian
aldaketak sartzeko Foru Dekretu
Arauari dagokiona**



1. Sarrera

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zergabilketan Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Tabako Laboreen Zerga Bereziko araudian aldaketak sartzeko Foru Dekretu Arauak.

Helburua da kalkulatzeko zenbateraino aldatuko den zergabilketa gaur egun indarrean dagoen araudiaren ordezkari arau proiektu berrian jasotzen diren aldaketa nagusiak aplikatzen badira. Hortaz, txosten honen xedea ez da proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, neurri horiek hartu eta indarrean daudenekin alderatzea baizik.

2. Araudiaren aldaketak

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna onartzen duenak, 21., 26. eta 33. artikuluetan hurrenez hurren jasotzen duenez, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta zerga bereziak tributu itunduak dira. Bertan xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak aplikatu behar dituzte zerga horiek kudeatzeko, salbuespen bat eginda: egoitza atzerrian duten pertsona edo entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta dituzten establezimendu iraunkorren Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionez, haiei Sozietateen gaineko Zergaren araudi autonomia aplikatuko zaie.

Berriki hiru xedapen onartu eta argitaratu dira estatuan: batetik, maiatzaren 11ko 18/2012 Errege Dekretu Legea, finantza sektoreko aktibo higiezinaren saneamendu eta salmentari buruzkoa; bestetik, ekainaren 29ko 2/2012 Legea,



Estatuaren 2012. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen; eta, azkenik, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legea, aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa. Eta horrek aldaketak eragin ditu Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan.

Zehazki, maiatzaren 11ko 18/2012 Errege Dekretu Legeak, amaierako bigarren xedapenaren bitartez, aldaketa bat sartu du martxoaren 5eko 5/2004 Errege Dekretu Legegilean, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testuategina onartzekoan. Aldaketa horren xedea da Espainian establezimendu iraunkorrik gabe lortzen diren ondare irabaziak partzialki salbuestea aipatutako errege dekretu legea indarrean jartzen denetik 2012ko abenduaren 31ra bitartean eskuratutako hiri ondasun higiezinaren eskualdaketatik datozenen.

Estatuaren 2012. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen ekainaren 29ko 2/2012 Legeak ere zenbait aldaketa sartu ditu Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, betiere indarrean dagoen araudia Europar Batasuneko ordenamendura egokitze aldera. Besteak beste ezarri du Espainian egoiliar diren sozietate filialek Europar Batasuneko beste estatu bateko sozietate nagusien alde banatutako etekinei aplikatzen zaien salbuespena Europako Espazio Ekonomikoko estatuetara ere zabalduko dela.

Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan sartu diren aldaketak 2/2012 Legean dauden jasota, eta izaera teknikoa dute. Kasu bietan, Espainiako ordenamendua Europar Batasuneko araudira nahitaez egokitu beharrak eragin ditu aldaketa horiek.



Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legeak, aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoak, aldaketak sartzen ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Tabako Laboreen gaineko Zerga Berezian. Hala ere, Foru Dekretu Arau honek soilik onartuko ditu berehala aplikagarri diren neurri fiskalak, hau da, Tabako Laboreen gaineko Zerga Bereziari dagozkionak.

Zerga honi dagokionez, 2012ko uztailaren 15etik aurrera, gutxieneko tasa bat ezartzen da zigarro eta zigarrotxoetarako, eta gutxieneko tasa igotzen da tabako xehearen kasuan.

Bestetik, Jokoaren gaineko Zergari dagokionez, beharrezkoa da bingo elektronikoaren tributazioa arautzea, datorren abuztuaren 14an amaituko baita joko modalitate horretarako indarrean dagoen frogaldia, hain zuzen Eusko Jaurlaritzako Hauteskunde Administrazioaren, Jokoaren eta Ikuskizunen Zuzendaritzak ezarria. Hori dela eta, presazkoa da joko mota horretarako tributazio araubide bat sortzea, zerga horren araudian ez baitago horrelako bat jasota.

Indarrean dagoen araudia eta proiektuan proposatutakoa alderatuz bien arteko diferentziarik esanguratsuenak identifikatu ditugu:

- **Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan eginiko aldaketa:**

Ehuneko %50eko salbuespena izango dute lurralde espainiarreko establezimendu iraunkorrik gabeko bitartekaritzarik gabe lortu diren eta Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezin besterentzetik eratorriak diren



ondare irabaziek, baldin eta 2012ko maiatzaren 12tik aurrera eta 2012ko abenduaren 31ra bitartean eskuratu badira.

- Jokoaren gaineko Zergaren aldatzea:

Bingo elektronikoko jokoaren modalitate berria sortzen da eta bere zerga tasa 100eko 25 izango da.

3. Zergabilketa eragina

3.1 Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga.

Ehuneko %50eko salbuespena izango dute lurralde espainiarreko establezimendu iraunkorrik gabeko bitartekaritarik gabe lortu diren eta Gipuzkoan kokatutako ondasun higiezinaren besterentzetik eratorriak diren ondare irabaziek, baldin eta 2012ko maiatzaren 12tik aurrera eta 2012ko abenduaren 31ra bitartean eskuratu badira. Zergabilketan neurri honen duen eragina kalkulatzekoan, kontuan izan behar dugu ondasunak saltzen diren unean izango dutela ondorioa eta baldin eta salmentak ondare irabazia ematen badute. Ez-egoiliarrek 2008-2011 epealdian salduriko ondasun kopurua eta batez besteko salneurria honako hau da:

URTEA	ZENBATEKOA	BATEZ BESTEKOA
2008	69	159.750
2009	74	131.741
2010	120	130.128
2011	70	130.528



3.2 Jokoaren gaineko Zerga.

Bingo elektronikoko jokoaren modalitate berria sortzeak eta bere zerga tasa 100eko 25 izateak diru sarreretan onura ekarriko du, baina ezin dugu zenbatu onura hori. Gainera bingo arruntarengan zer ondorio eragin dezaken ere ez dakigu. 2008-2011 epealdian bingoarengatik izan ditugun diru sarrerak hauek dira: 2008: 9,7 milioi euro; 2009: 7,9 milioi euro; 2010: 7,1 milioi euro eta 2011: 4,9 milioi euro.

3.3 BEZA eta Zerga Bereziak.

BEZan eta Zerga Berezietan azaldutako aldaketak teknikoak dira eta ia batere ondorio ekonomikorik ez dute izango. Bere helburu bakarra onartuta dauden arauetara hobekuntzak ezartzea da eta araudiari zehaztasuna juridiko handiagoa ematea.

4. Genero eragina.

4.1. Txostenaren oinarriak eta xedea.

Euskal Autonomia Elkargoko gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 6. artikuluan foru administrazioei ematen die emakume eta gizonen arteko berdintasuneko printzipioaren arabera foru araudiari eta horren aplikazioari jarraipena egiteko ahalmena. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du, foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak prestatzeko prozeduraren barruan, genero eraginari buruzko derrigorrezko txosten bat aurkeztea eranskin gisa.



4. 2. Genero ikuspuntutik kontuan hartzeko neurrien identifikazioa.

Pertsonei (gizonak edo emakumeak) eragingo dieten neurri batzuk identifikatu dira. Zehazki, eragin hauek izango dituzte:

Zerga Berezietan, BEZan, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan eta Jokoaren gaineko Zergan eginiko aldaketak, zuzenean gizon eta emakumeei eragiten die. Horregatik, iruditzen zaigu aldaketa hau aztertzea EGOKIA dela, baina ezin da kuantifikatu genero eraginari dagokionez.

Donostia, 2012ko uztailaren 23a

AZTERLAN ATALEKO TEKNIKARIA

ONIRITZIA

ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA